

IKASLE BERRIENTZAKO HARRERA PROGRAMA

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA

2024–2025 ikasturtea

Ikasle berrientzako Harrera Programa

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA



Reconocimiento – NoComercial – SinObraDerivada (CC by-nc-nd 2.5 ES): Se permite la copia y distribución del material en cualquier medio o formato siempre que se cite la autoría y no se modifique el texto. Tampoco se permite su utilización con finalidades comerciales.

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

Sarriena auzoa z/g

48940 - LEIOA

Aurkibidea

01 TESTUINGURUA ETA HELBURUAK.....	3
02 ESKU-HARTZE EREMUAK.....	4
03 KOORDINAZIOA.....	4
04 HARRERA, INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA EKINTZAK.....	6

Ikasle berrientzako Harrera Programa

2024-2025 | Programa

01 TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Ikasle berrientzako harrera-programa **Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Tutoretza Ekintzaren Programaren (PAT)** barruan kokatzen da.

Programa honen hartzaileak **hiru profil nagusiri** dagozkie.

- a) **Graduko unibertsitate-ikasketetan lehen aldiz sartzen den ikaslegoa.**
Bigarren hezkuntzako ikastetxeetatik datozen ikasleentzat, campusak, fakultateak eta, oro har, unibertsitateak esperientzia berria dira, bai denboraren kudeaketari dagokionez, bai espazioei, pertsonekin dituzten harremanei eta garatu beharreko jarduerari dagokienez. Lehenengo mailatik azkenekora arte, eta bereziki lehenengoan, alderdi horiek guztiak kudeatzen ikastea etengabeko ikaskuntza-prozesua da.
- b) **Mugikortasun-programen bidez graduko ikasketetara sartzen diren ikasle bisitariak (incoming).**
Unibertsitate-bizitzan esperientzia handiagoa duten arren, kolektibo honek testuinguru eta kultura akademiko desberdin batera egokitu behar du. Hala ere, campus-esperientzia dutenez, behar duten laguntza gai espezifikokoetara bideratuta egoten da.
- c) **Graduondoko unibertsitate-ikasketetan lehen aldiz sartzen den ikaslegoa.**
Unibertsitatea ezagutzen duten arren, Fakultatean lehen aldiz integratzen dira. Aurreko kolektiboaren antzera, esperientzia akademiko eta pertsonal handiagoa dute, eta haien beharrak ere espezifikokoak dira.

Oro har, harrera-programan jasotzen diren ekintzen **helburu nagusia** da ikasleen egokitapena erraztea unibertsitate-bizitzara, oro har, eta **Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatera eta ikasleen titulaziora**, bereziki.

Horretarako, honako behar hauei erantzutea proposatzen da:

- Unibertsitatearen, Fakultatearen eta graduen antolaketari buruzko informazioa,
- Ikasleen eskubide eta betebeharrak jasotzen dituen oinarrizko araudia ezagutzea,
- Campusak eta Fakultateak eskaintzen dituzten zerbitzuen berri izatea, betiere kolektibo bakoitzaren behar espezifikokoetara egokituta.

Edonola ere, **helburu nagusia** da ikasleek lehen unetik sentitzea **ikaskuntza-komunitate bateko kide aktibo** direla; komunitate horretan ikaslea zaindua da, baina aldi berean zaintza horren parte ere bada. Fakultatea ikasle berriek **ehun komunitario eta dinamiko** gisa bizitzea nahi dugu, non ikastea, sortzea, parte hartzea eta konpromisoa hartzea diren esperientzia unibertsitarioa definitzen duten ezaugarriak.

Graduko lehen mailako ikasle berrien kasuan, programa hau **funtsezkotzat** jotzen da ikasleen lotura eraginkorra eta afektiboa sustatzeko, bai ingurunearekin bai aukeratutako ikasketekin, eta **gradueta jarraipena bermatzeko**. Azken urteotan, lehen mailan unibertsitate-ikasketak uzteko joera handitu dela ikusi da. Zalantzarik gabe, Fakultatea, bere baliabideak eta eskura dauden laguntza-sistemak ezagutzeak —ikasketen jarraipena baldintzatzen duten zailtasun eta beharrei aurre egiteko— ikasleei egoera hobeto ulertzen eta konpontzen laguntzen die.

Laburbilduz, ekintza-programa honen bidez honako helburuak lortu nahi dira:

1. Ikasle berrien **trantsizioa erraztea** unibertsitate-bizitzara, Fakultatean eta unibertsitatean integratzea sustatuz..
2. **Ikasketa-plana**, haren aldaerak eta modalitateak ezagutaraztea, eta egonaldi akademikoa hobetuko duen informazio akademikoa eta administratiboa eskaintzea.
3. Ikasleen **zailtasunak eta beharrak identifikatzea**, irtenbide posibleak aztertuz, ikasle berrien gogobetetasuna hobetzeko, ikaskuntza bideratzeko, integrazioa eta ongizatea zaintzeko eta arazoei aurrea hartzeko.
4. Ikasleen **parte-hartzea sustatzea** unibertsitate-bizitzan.

02 ESKU-HARTZE EREMUAK

Ikasleei Arreta emateko Programaren (PAT) barruan kokatutako programek eta ekintza espezifikoek ikasleen ibilbidea hartzen dute kontuan, **orientazio akademikotik hasi, unibertsitate-harreratik igaro, laguntza akademikoa eskaini eta hasierako garapen profesionaleraino**. Ibilbide horretan zehar agertzen diren beharrak **lau esku-hartze eremu nagusitan** antolatzen dira, elkarren artean estuki lotuta daudenak:

1. **Eremu akademikoa:**
Ikasleei beren proiektu akademikoa garatzeko beharrezko informazioa ematea barne hartzen du: ikasketa-plana, irakasgaien ezaugarriak, eskaintza eleaniztuna, praktikak, mugikortasun-programak, eta abar.
2. **Kudeaketa eta parte-hartzea:**
Unibertsitateko eta Fakultateko kudeaketa- eta ordezkaritza-organoei buruzko informazioa eta ikasleen parte-hartzea sustatzea.

3. **Eremu administratiboa:**
Prozedurei buruzko informazioa, harremanetarako pertsonak, inprimakiak, kudeaketa-egutegia, informaziorako sarbidea eta antzeko alderdiak barne hartzen ditu.
4. **Zerbitzuak, zaintza eta inklusioa:**
Campusak eta Fakultateak eskaintzen dituzten zerbitzuak biltzen ditu, ikasleen unibertsitate-bizitza errazteko eta haien behar anitzei erantzuten dien **sare komunitario bat** eskaintzeko, ikuspegi integral batetik eta **ongizate pertsonala eta unibertsitate-bizitzan integrazio osoa** ardatz hartuta.

Beraz, **lau eremu horietako beharrak** dira ikasle berrientzako harrera-programaren barruan jasotzen eta lantzen direnak.

03 KOORDINAZIOA

Ikasle berrientzako harrera-programak **Fakultatea osatzen duten pertsona guztien inplikazioa** eskatzen du. Horregatik, beharrezkoa da **hainbat mailatan koordinazioa** izatea, eta, bereziki, aurretik deskribatutako ikasle-kolektibo bakoitzaren harreraz arduratzen diren **dekanoordetzen arteko lankidetzak**.

1. **Antolaketa Akademiko eta Ikasleen Dekanoordetza** da graduako titulazioetan sartzen diren ikasle berrien harreraren arduraduna. Dekanoordetza honek, **Komunikazioko Dekanoordetzarekin** eta titulazio bakoitzeko **koordinazioekin** elkarlanean, harrera-ekintzen programa garatu, koordinatu eta hobetzeko ardura du.
2. **Mugikortasun eta Nazioarteko Harremanetako Dekanoordetza** da ikasle bisitarien (incoming) harreraren arduraduna. **Komunikazioko Dekanoordetzarekin** eta **Nazioartekotze Batzordearekin** koordinatuta, eta arloko teknikariaren laguntzarekin, kolektibo honi zuzendutako harrera-ekintzak gauzatzen ditu, baita hobekuntza-proposamenak lantzen ere.
3. **Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzako Dekanoordetza** da graduondoko ikasketetan sartzen diren ikasle berrien harreraren arduraduna. Ardura hori **master bakoitzeko batzorde akademikoekin** eta **graduondoko arloko teknikarien** laguntzarekin partekatzen da. Elkarlanean, kolektibo honi begira kontuan hartu beharreko hobekuntza-ekintzak definitzen dira.

Dekanoordetza horietatik abiatuta, harrera-ekintzak **dagokien errektoreordetzen plan eta zerbitzuekin** koordinatuta gauzatzen dira, bereziki honako unitate eta zerbitzuekin lankidetzan: Ikasleen Zuzendaritza, Desgaitasunaren Arreta Zerbitzua, Kirol Zerbitzua, Berdintasunerako Zuzendaritza, SOU (Unibertsitate Orientazio Zerbitzua), Liburutegia, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa, Graduondoko Zuzendaritza, Unibertsitateko kudeaketa-egitura desberdinak. Egitura eta zerbitzu horiek

guztiek parte hartzen dute harrera-prozesuan, eta, era berean, **programa hobetzeko proposamenak** egin ditzakete.

Azkenik, **Kalitate eta Azpiegituretako Dekanoordetza** arduratzen da harrera-programaren **ebaluazioaz eta hobekuntzaz, Barne Kalitatea Bermatzeko Sistemaren (SGIC)** urteko berrikuspenaren esparruan.

04 **HARRERA, INFORMAZIO ETA AHOALKULARITZA-EKINTZAK**

Atal honetan jasotzen diren ekintzek ikasleei **unibertsitate-testuinguru sozial, antolatzaile eta egiturazkora egokitzen** laguntzen diete, bai eta ikasketak egiten dituzten irakaskuntza-zentroaren dinamikan **modu aktiboan integratzen** ere. Era berean, egokitzapen eta integrazio hori lortzeko beharrezkoa den **informazioa eta prestakuntza** eskaintzen dute.

Jarraian, **harrera-, informazio- eta aholkularitza-edukien formatuari buruzko oinarrizko informazioa** jasotzen duen **laburpen-taula** aurkezten da. Harrera-programari eta barne hartzen dituen ekintzei buruzko informazio zehatzagoa —hartzaile diren kolektiboen arabera sailkatua, helburuekin eta ikasturteko plangintzarekin batera— **ondoko taulan** jasotzen da.

I. TAULA

HARRERA, INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA	
HARRERA: - Ongietorri-mezu elektronikoak - Harrera-gidak / liburuxkak - Matrikulazio-egunak - Ongietorri-ekitaldiak - Hasierako saioak (Masterrak) - Ikasturte-hasierako saioak	INFORMAZIOA: - Informazio akademikoa eta zerbitzuei buruzkoa webgunean - eGelaPI (mugikortasuna) - Bideoak eta tutorialak
AHOLKULARITZA: - Matrikulari buruzko aholkularitza - Gradu koordintzailearen eta mailako tutorearen aholkularitza - Liburutegiaren online prestakuntza-saioak (BiblioLAGUN – BASIC) - Campuseko zerbitzuei buruzko aholkularitza - Egonaldiari buruzko aholkularitza (teknikaria eta buddies / laguntza-ikasleak) -	
ERAGILE NAGUSIAK Dekanoa eta arloko dekanoordeak Gradu eta Gradu Bikoitzeko koordinatzaileak Masterretako Batzorde Akademikoak Mugikortasun-arloko teknikariak Idazkaritzako langileak Zerbitzuetako langileak Masterretako Batzorde Akademikoak	

TAULA 1: IKASLEEN HARRERA PROGRAMA

IKASLE HARTZAILEA	EKINTZA	ERAGILEAK	EDUKIA	KRONOLOGIA
Graduko eta Gradu Bikoitzeko titulazioetan lehen aldiz sartzen den ikaslegoa	MATRIKULAZIOKO HARRERA	Idazkaritzako langileak	Lehen mailako ikasleek gure komunitateari eta ikasturte akademikoari buruzko oinarrizko informazioa jasotzen dute. Orain arte, informazio hori karpeta baten bidez ematen zen. 2025–2026 ikasturtetik aurrera, karpeta hori liburuxka batek ordezkatuko du, honako informazio hau jasoko duena: Ongietorri-ekitaldiari buruzko informazioa eta Webgunean eskuragarri dagoen informaziora sartzeko QR kodeak: Fakultatearen planoa, Egutegi akademikoa, Kudeaketa akademikoko egutegia, Taldea eta eskola-ordutegiak, Azterketa-egutegia, Hizkuntza ez-ofizialetan eskaintzen diren irakasgaien eskaintza	UZTAILAREN 2. Astea
	ONGIETORRI- SAIOA Helburua: informazio eta orientazio orokorra eskaintzea.	Dekanoa Idazkari akademikoa Irakaskuntza Antolaketako Dekanoordea Laneratze eta Jardun Profesionaleko Dekanoordea Komunikazioko Dekanoordea Mugikortasun Programetako Dekanoordea Ikasleen Kontseiluko presidentea	Fakultateari buruzko informazio instituzionala ezagutaraztea. Ikasle berriei zuzendaritza-taldearen eta komunitatea osatzen duten pertsona guztien hurbiltasuna eta prestutasuna erakustea, haien integrazioa eta parte-hartzea errazteko. Zuzendaritza-taldeko kideen eta ikasleen esku-hartze laburren bidez honako informazioa eskaintzen da: Fakultateari eta graduetako eskaintzari buruzko informazioa, Programa desberdinak (mugikortasuna, praktikak, etab.), Kudeaketa-alderdiak, Campuseko zerbitzuak, Ikasleen Tutoretza Plana. Ikasleek galderak egiteko aukera dute eta saioaren balorazio-inkesta betetzen dute.	IRAILAREN 1. Astea

IKASLE HARTZAILEA	EKINTZA	ERAGILEAK	EDUKIA	KRONOLOGIA
	GRADUKO IKASLEENTZAKO INFORMAZIO-SAIOAK Graduari eta koordinazioari buruzko informazio eta orientazio espezifikoa eskaintzea.	Graduko koordinatzailea Lehen mailako koordinatzailea	Lehen mailako graduko eta gradu bikoitzeko ikasleen beharretara egokitutako informazio praktikoa eskaintzea. Saioen edukia: Fakultatearen egitura eta titulazioen eta lehen mailaren koordinazioaz arduratzen diren pertsonen aurkezpena, baita haien eginkizunak ere Ikasketen antolaketa. Lehen ikasturtearen testuingurua Egutegiak eta ordutegiak: ulermen egokirako azalpena Idazkaritza: idazkaritza akademikoaren eta administratiboaren arteko bereizketa. Kokapena, ordutegiak, estekak eta kontsulta motak Fakultateko azpiegituren erabilera. MAILEGU programa eta espazioen erabilerarako protokoloa. Liburutegia Komunikazioa: informaziorako sarbidea (webgunea, posta elektronikoa) eta informazioa zabaltzeko aukerak Programa akademikoak: praktikak / prestakuntza duala eta mugikortasuna. Etorkizunean programa horietan parte hartu nahi duten lehen mailako ikasleek jakin beharrekoa Tutoretza- eta laguntza-programak: IKASKIDE eta Entzute Sarea Parte-hartzea: ordezkaritza-organoak eta Fakultateko jardueretan parte hartzeko aukerak Laguntza-baliabideen aurkezpena: Desgaitasun Zerbitzua, Genero Protokoloa, Gaztepatia	IRAILAREN 2. Astea
Mugikortasun-programetako ikasle bisitariak (incoming)	ONGI-ETORRI EKITALDIA SICUE ERASMUS AL eta bestelako helmugak	Mugikortasuneko Dekanoordea Mugikortasuneko teknikaria Buddies (laguntza-ikasleak)	Ongietorria Campusari eta Fakultateari buruzko informazioa, Ikasketa-programari buruzko informazioa eta aholkularitza, Ikasketa-akordioaren kudeaketa, Fakultatearen antolaketa, Tutoretzak Zerbitzuak eta komunikazio-kanalak	IRAILAREN 2. Hamabostaldia

IKASLE HARTZAILEA	EKINTZA	ERAGILEAK	EDUKIA	KRONOLOGIA
	1. LAUHILEKOA ETA IKASTURTE OSOA Saio bikoitza (gaztelaniaz eta ingelesez)			
	ONGI-ETORRI EKITALDIA SICUE ERASMUS AL eta bestelako helmugak 2. LAUHILEKOA ETA IKASTURTE OSOA Saio bikoitza (gaztelaniaz eta ingelesez)	Mugikortasuneko Dekanoordea Mugikortasuneko teknikaria Buddies (laguntza-ikasleak)	Ongietorria Campusari eta Fakultateari buruzko informazioa Ikasketa-programari buruzko informazioa eta aholkularitza, Ikasketa-akordioaren kudeaketa, Fakultatearen antolaketa, Tutoretzak, Zerbitzuak eta komunikazioak Buddy programaren aurkezpena (laguntza-ikaslearen eginkizunak) Webgunearen eta nazioarteko ikasleei zuzendutako atalaren aurkezpena	URTARRILLAREN 2. Hamabostaldia
	BUDDY PROGRAMAREN INFORMAZIO-BILERAK	Mugikortasuneko Dekanoordea Mugikortasuneko teknikaria	Fakultateak BUDDY programa propioa dauka. Buddy ikasleei zuzendutako informazio-bilerak ikasle bisitariak iritsi aurretik egiten dira. Buddies ikasle bisitariari esleitzen zaizkie haien iritsieran. - Webgunearen aurkezpena - Nazioarteko ikasleei zuzendutako atala (https://www.ehu.eus/es/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea/international-exchange-students)	1. bilera: EKAINA 2. bilera: ABENDUA
	EGELAPI GRZ – NAZIOARTEKO IKASLE BISITARIA	Mugikortasuneko Dekanoordea Mugikortasuneko teknikaria	Tresna honen bidez: Matrikula egiteko informazio garrantzitsua eskaintzen da (idazkaritzaren bidez) https://egelapi.ehu.eus/course/view.php?id=1445	

IKASLE HARTZAILEA	EKINTZA	ERAGILEAK	EDUKIA	KRONOLOGIA
			Buddy programaren balorazioa egiten da Egonaldiaren amaieran azken urratsen berri ematen da (egonaldi-amaierako dokumentua, Ikasketa Akordioa behar bezala osatuta egotea..) Gogobetetasun-inkesta betetzen da, kalifikazioak bidaltzeko ezinbestekoa https://forms.gle/BkCp3sAMqy8D4opa7	
	AHOLKULARITZA INTENTSIBOA	Mugikortasuneko Dekanoordea Mugikortasuneko teknikaria	Egonaldi osoan zehar, ikasle bisitariek mugikortasuneko teknikariaren laguntza zuzena jasotzen dute ikasketa-akordioari buruz sortzen diren zalantza edo zailtasunetan.	IKASTURTE OSOA
	CAMPUS MAILAKO ONGIETORRI- EKITALDIK: September Wellcome Celebration Winter Wellcome Day)	Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa	Campusak antolatutako ekitaldia nazioarteko ikasleentzat: Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordearen ongietorria Campuseko eta UPV/EHUko informazio praktikoa Jarduera kulturalak Erasmus Student Network Bazkaria	IRAILAREN 2. hamabostaldia OTSAILAREN 2. hamabostaldia
Masterretako ikasleak	MATRIKULAZIOKO HARRERA	Masterretako idazkaritzako langileak	Lehenengo mailako ikasleek gure komunitateari eta ikasturteari buruzko oinarritzko informazioa jasotzen dute. Honako informazioa jasotzen duen karpeta ematen zaie: - Fakultatearen planoa - Egutegi akademikoa - Kudeaketa akademikoko egutegia - Taldea eta eskola-ordutegiak	UZTAILAREN 2. hamabostaldia

IKASLE HARTZAILEA	EKINTZA	ERAGILEAK	EDUKIA	KRONOLOGIA
			- Azterketa-egutegia - Hizkuntza ez-ofizialetan eskaintzen diren irakasgaiak	
	ONGIETORRI-EKITALDIAK Helburua: Masterrari eta Fakultateko zerbitzuei buruzko informazio eta orientazio espezifikoa eskaintzea.	Masterretako arduradunak Irakasleak Dekanotzako taldeko kide bat	Master bakoitzak bere ongietorri-ekitaldia eta programa propioa antolatzen ditu. Edukiak: - Fakultatearen aurkezpen laburra - Masterrari buruzko informazioa (edukiak, egutegia) - TFM, Practicum, ikerketa-lerroak eta taldeak - Hasierako hitzaldia - Lunch-a	URRIAREN 1. hamabostaldia